



## 2020ko euskararen garapena DONOSTIAKO ZINEMALDIKO filmetan

Aurten ere, Bagera Elkartek Zinemaldiaren euskararen erabileraren neurketa egin du.

Tamalez, Donostiako Zinemaldian entzun daitezkeen hamarnaka hizkuntzetatik “beste bat” da euskara. Portzentajetan gora egin badu ere, euskararen erabilerak oso urria izaten jarraitzen du. 2019an 39 filmetan izan zuen euskarak presentzia. Aurten, berriz, 37 film izan dira. Beraz, arlo honetan ere, badugu zeregina euskara lehen lerrora ekartzeko.

### Hona hemen sail eta filma guztiak kontutan hartuta 2020ko Zinemaldian izan den euskararen erabilera:


Film kopuruei dagokienaz, 131 filmetatik 12 euskaraz ekoitzi dira (%9,16), 6 euskarara bikoiztuak (%4,58 haurren zinema) eta 19 film euskaraz azpidatzi dira (%14,50). Orotara %28,24 filmetan euskara erabili da.

Emanaldiei dagokienaz, 490 emanaldietatik 42 euskaraz ekoiztutakoak izan dira (%8,57), 35 euskaraz azpidatutakoak (%7,14) eta 12 euskaraz bikoiztutakoak (%2,45 haurren zinema). Orotara %18,16.

\* *Euskarara bikoiztutakoak, haur sailean proiektatutako filmak izan dira, aurreko urteetan bezala filma guztiak euskaraz entzun ahal izan dira sail horretan.*

\* *“Euskaraz” diogunean jatorrizko bertsioa euskaraz, euskaraz azpidatzia edo euskaraz bikoiztua izan dela esan nahi dugu.*

Hona hemen **filmetan** grafikoki euskarak izan duen garapena urtez urte ehunekotan:






Orokorrean hartuta, iazko Zinemaldiarekin alderatuta euskararen erabilerak gora egin du 8 puntutan (%19,70etik %28,24ra) portzentajeari dagokionez. 131 filmetatik 37 filmetan izan du euskarak presentzia eta 490 emanaldietatik 86 emanalditan (iazko datuekin alderatuta %12,28tik %18,16ra). Baina filmen kopuruari erreparatzen badiogu, 2019an 39 filmetan izan zuen euskarak presentzia. Aurten, berriz, 37 film izan dira (2 gutxiago).

Bestetik, film kopurua eta emanaldi kopuruen datuak alderatuta desoreka mantentzen da.

Horretaz gain, euskaraz ekoiztutako edo azpidatzitako filmak oraindik ere ez dira sail guztietara zabaldu eta euskararen presentziak oso urria izaten jarraitzen du.

Hona hemen **sailez sail**, aurten, euskarak izan duen lekua:

## Film kopuruen arabera




Saila	Film kopurua	euskaraz	%
Sail Ofiziala	19	1	5,26
Zuzendari Berriak	12	8	66,67
Horizontes Latinos	9	0	0
Zabaltegi-Tabakalera	20	10	50
Perlak	11	2	18,18
Nest	13	0	0
Culinary Zinema	4	2	50
Made in Spain	8	0	0
Zinemira	18	6	33,33
Zinemira Kimuak	1	0	0
Haurrentzako Zinema	6	6	100



Euskal Zinemaren Gala	1	1	100
RTVE Gala	3	0	0
EITB Gala	1	1	100
Tous gala	1	0	0
Ongintza Gala	1	0	0
Movistar Gala	1	0	0
Donostia sari emanaldia	1	0	0
Film sorpresa	1	0	0
<b>OROTARA</b>	<b>131</b>	<b>37</b>	<b>28,24</b>

### Emanaldi kopuruen arabera



Saila	Emanaldi kopurua	euskaraz	%
Sail Ofiziala	110	5	4,54
Zuzendari Berriak	65	23	35,38
Horizontes Latinos	39	0	0
Zabaltegi-Tabakalera	86	20	23,25
Perlak	62	2	3,22
Nest	13	0	0
Culinary Zinema	13	4	30,76
Made in Spain	20	0	0
Zinemira	41	20	48,78
Zinemira Kimuak	5	0	0
Haurrentzako Zinema	12	12	100



Euskal Zinemaren Gala	1	1	100
RTVE Gala	9	0	0
EITB Gala	2	2	100
Tous gala	3	0	0
Ongintza Gala	2	0	0
Movistar Gala	2	0	0
Donostia sari emanaldia	5	0	0
Film sorpresa	3	0	0
<b>OROTARA</b>	<b>490</b>	<b>89</b>	<b>18,16</b>

Donostiako Zinemaldiak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren diru laguntza jasotzen du. EAEn euskara hizkuntza ofiziala denez, Donostiako Udal Ordenantzek hala jasota, euskarak, gutxienez, gazteleraren trataera berdina izan beharko luke. Baina hori ez da horrela datuek adierazten duten moduan. Are gehiago, euskararen erabilerak txikia jarraitzen du izaten. Horregatik, Bagera Elkarreak uste du instituzioek esfortzu berezia egin beharko luketela filmak euskaraz azpidatzi daitezzen. Ikus-entzunezkoak ere badira hizkuntza normalizatzeko tresna baliagarria.